

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak honako hauek dira:

1. Produkziozko jarduerak
2. Arazoak konpontzeko jarduerak
3. Plataformako edo sareko jarduerak.

Funtsezko baliabideak bezalaxe, funtsezko jarduerak ere ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeko eta diru sarrerak lortzeko.

Geure enpresan adibidez, hornitzaileari zuzendutako erosketak, web-gunearen diseinua, produktua bidaltzen den eraginkortasuna eta abiadura, bezeroaren atentzioa, produktuaren promozioak etab. dira gauzatu behar ditugun jarduera printzipalak. Beste faktore klabe bat produktuaren entrega da.

